

Donostia, 2021eko urriaren 18a

## **“DBUS ETA GABONAK” HAURENTZAKO XV. MARRAZKI LEHIAKETA**

Dbusek “Dbus eta Gabonak” 2021 marrazki lehiaketa antolatu du neska-mutikoentzat.

Neska-mutikoen sormena sustatzeaz gain, lehiaketaren asmoa da Donostian garraio publikoa erabiltzeak duen garrantziaz ohartaraztea, Donostiako hiri guneen eta donostiarren bizi kalitatearen iraunkortasuna bermatzeko balio baitu. Gabonetan, zehazki, garraio publikoaren erabilera funtsezkoa da mugikortasuna efizientea izatea bermatzeko.

### **LEHIAKETAREN OINARRIAK**

13 urtetik beherako neska-mutiko guztiek parte hartu dezakete lehiaketan. Nahi duten marrazkia egin beharko dute, baina beharrezkoa izango da marrazkiak Gabonei buruzko ideia bat edukitzea eta autobusarekin erlazionatuta egotea.

Marrazkiak Fnac-eko mostradorean entregatuko dira (San Martin azoka) edo Dbuseko bulegoetan (Fernando Sasiain, 7), eta atzealdean parte hartzailearen datuak jarriko dira:

- Izen-abizenak
- Adina
- Jaiotze data
- Helbidea
- Telefonoa eta harremanetarako posta elektronikoa
- Ikastetxea
- Baimendutako tutorearen izenpea

Ezinbestekoa da datu pertsonal guztiak adieraztea. Bestela, marrazkia lehiaketatik baztertuta geratuko da. Derrigorrezkoa izango da, halaber, formularioa betetzea parte hartzailearen legezko tutoreen baimenarekin. Formularioa gure webgunean dago eskuragarri ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)).

Bi kategoria egongo dira:

- **A Kategoria:** 8 urte artekoa, hau da, 2013an edo geroago jaiotako haurrentzat.
- **B Kategoria:** 9 eta 12 urte artekoa; hau da, 2009an, 2010ean, 2011n edo 2012an jaiotako haurrek parte hartu ahal izango dute.

Marrazkiak jasotzeko azken eguna **2021eko azaroaren 12a da.**

## SARIAK

Epaimahaiak, Dbusek izendatua, kategoria bakoitzeko marrazki irabazleak hautatuko ditu.

- Lehen saria: Txartel pertsonal eta eskualdaezina, Dbuseko autobusetan nahi beste erabiltzeko, 2022ko 6 hilabetetan + HUAWEI T10S TABLETA.
- Bigarren saria: Txartel pertsonal eta eskualdaezina, Dbuseko autobusetan nahi beste erabiltzeko, 2022ko 3 hilabetetan + ARGAZKI KAMERA.
- Hirugarren saria: Txartel pertsonal eta eskualdaezina, Dbuseko autobusetan nahi beste erabiltzeko, 2022ko 3 hilabetetan + LIBURU SORTA ETA IDAZKETARAKO SORTA.
- Gainerako finalistek (4. postutik 10.era) Diploma bana jasoko dute.

Dbusek marrazkiak zabaltzeko, jendearen aurrean erakusteko eta erreproduzitzeko eskubidea dauka, baina marrazkien jabeek, beren lanen jabeak direla aitortzen baitzaie, ez dute horregatik dirurik eskuratzeko eskubiderik edukiko. Dbusen marketin kanpainetarako erabili ahal izango dira marrazkiak.

Lehiaketarako izena ematean parte hartzaileek ematen dituzten datuak Dbusen jabegokoa den fitxategi batean sartuko dira beraien tratamendurako, eta lehiaketan parte hartzea kudeatzeko erabiliko dira. Dbusen Pribatutasun Politikari buruz edota interesdunak honi lotuta dituen eskubideen erabileraz gehiago jakiteko, begiratu [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) web orrian.

Finalera heltzen diren marrazkiak Dbusek erakutsiko dira abenduan zehar. Marrazkiak, halaber, erakusketa egiteko prestatutako leku publikoetan jarri ahal izango dira ikusgai. Erakusketa amaitu ondoren, marrazkiak gorde egingo dira zaintzapean, hilabete bateko epean.

Sariak banatzeko ekitaldia abenduaren 10ean izango da, ostiralean, 18:00etan, AQUARIUM-eko Auditorium aretoan.

Informazio gehiagorako, kontsultatu gure webgunean ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)) edo jar zaitez gurekin harremanetan 943 000 200 telefono zenbakira deituta.